

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko martxoaren 4an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2024rako ekiteko beken udal programaren deialdia onartu zen**

BDNS(Identif.): 757588.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/757588>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpen bat argitaratzen da, zeinaren testu osoa Dirulaguntzen Oinarri Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean (<http://www.vitoria-gasteiz.org>) kontsulta baitaiteke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Vitoria-Gasteizen errolatuta dauden pertsona fisikoak, adinez nagusiak, baldin eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda ez badaude eta norberaren konturako jarduera ekonomikoren bat egiten ez badute, eta Vitoria-Gasteizen enpresa sortzeko enpresa-ekimen bat garatzen ari badira (garapen-fasean dauden proiektuak soilik), aurreko urteetan bekaren onuradun izan ez badira.

#### **Bigarrena. Xedea**

Vitoria-Gasteizko udalerrian jarduera ekonomikoa sustatzea, ekintzailetza-kulturari eta ekintzaileei lagunduz enpresa-proiektuaren garapen-aldian.

Deialdia norgehiagoka-prozeduraren bidez izapidetuko da, eta deialdi irekia egingo da, aurrekontu-ekitaldi batean zehar hainbat hautaketa-prozedura jarraituta, dirulaguntza ildo bererako.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak, 2023ko apirilaren 21eko ohiko bilkuran, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Ordenantza hori, azkenean argitaratu zen ALHAOn, 88. zk., 2023ko uztailaren 28a, ostirala, eta 2023ko urriaren 1ean sartu zen indarrean. Ordenantza horren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko martxoaren 1ean egindako ohiko bilkuran onartutako "2024 Ekiteko Beken Udal Programa" arautzeko oinarriak.

Biak ala biak udalaren web orrian ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) eta herritarrei arreta emateko bulegoetan kontsulta daitezke.

**Laugarrena. Zenbatekoa**

Laguntzen deialdi honen zuzkidura ekonomikoa 90.000,00 eurokoa da, 2024rako onartutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidan erabilgarri dagoen saldoaren kargura. Bekaren banakako zenbatekoak ez ditu honako zenbateko hauek gaindituko: 2.500,00 euro 85 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskabideak; 1.000,00 euro gutxienez 65 puntu lortzen dituztenak. 66 eta 84 puntu arteko gainerako proiektuei proportzio lineal bat aplikatuko zaie bekari dagokion zenbatekoa lortzeko.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Aldez aurretik argitaratu ondoren, deialdi honek eskabideak aurkezteko bi epe izango ditu:

Lehenengo epea deialdiaren laburpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2024ko ekainaren 14an amaituko.

Bigarren epea: 2024ko ekainaren 15etik irailaren 27ra.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 22a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta  
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua  
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ*